

## **KONTROL MOZIOA**

### **DONOSTIAKO PUNTU KRITIKOAK**

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko urtarrilaren 14an Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Emakumeentzako hiri seguru bat eraikitzeko asmoz, puntu kritikoak izan daitezkeen guneak identifikatu eta eraldatzen ditu Udalak hiriko mugimendu feminista eta auzo elkarteekin batera.

2013az geroztik, Donostian identifikatutako 41 puntu kritiko zehaztuta daude eta Udalbatzak hiriko eraso matxistei aurre egiteko konpromisoak eta ekintzak lehentasunezkatzat hartu dituen arren, Udal Gobernuak urtero aurrekontuetan puntu kritikoak ezabatzeko onartzen den dirua ez du urtean bertan exekututzen.

Modu berean, urrian hiriko puntu kritikoen mapa publiko egin zen eta herritarrek puntu berriak adierazteko edo eta puntuei jarraipena emateko iradokizunak egiteko aukera dute. Hala ere, puntu kritikoen inguruan iradokizunak egiteko atalak ez du argazkirik igotzeko aukera bermatzen eta gaur egun, aukera hori ematea ezinbesteko ikusten dugu, egiten diren iradokizunei erantzuna emateko beharra bezala.

Bi gai hauen inguruan, ez zuen azalpen garbirik eman zinegotzi-ordezkariek hilabete honetako batzordeetan.

Puntu Kritikoen Mapa, Udalak eta herritarrek elkarrekin lantzeaz gain, lehentasunez esku hartu beharreko gaia dela uste dugu. Hori guztia dela eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

## **KONTROL MOZIOA**

- 1.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako puntu kritikoak ezabatzeko politikak lehentasunezko gai gisa hartzea.
- 2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko puntu kritikoak ezabatzeko urtero udal aurrekontuetan jasotzen den dirua urtean bertan exekutatzeko.
- 3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari publiko egin duen puntu kritikoen mapa digitalaren inguruko informazioa hiriko etxe guztietara zabaltzeko.
- 4.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, herritarrek puntu kritikoen mapa digitalean iradokizunak egiteko aukera duten bezala, argazkiak ere igotzeko aukera bermatzeko.
- 5.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari herritarrek puntu kritikoen mapa digitalean egiten dituzten iradokizunen inguruko erantzunak hilabeteko epean jasotzeko.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 16an

Naiara Sampedro Perez

**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**